

FUNTSEZKO JARDUERAK

BiTime enpresaren jarduera nagusiak:

- **Produktuaren garapenean eta edukien sorkuntzan oinarrituta daude.** Horretarako, Lekeitioko historia, kultura eta memoria ikertu eta dokumentatu behar ditugu, udal artxiboarekin, historialariekin eta Lekeitioko eragileekin. Lortutako informazio hori gure produktuan sartuko dugu eta bezero-segmentu bakoitzaren beharretara egokituko dugu denbora aurrera eginez egingo diren aurreraketan barne.
- **Webgunea eta sare sozialak:** Funtsezko tresnak dira bezeroen komunikaziorako eta gure produktuen salmentarako. Horretarako webgune bisual, errez eta irisgarri bat diseinatuko dugu, bertan produktuaren azalpenak, erreserbak eta kontaktu-bideak eskainiko ditugu. Baita ere gure sare sozialen edukiek eta eguneraketak garrantzia izango du bezeroak erakartzeko orduan.
- **Bezeroarentzako arreta eta salmentak:** Esan bezala, oso garrantzitsua da konfiantzazko harremanak sortzea. Horretarako, aurrez aurreko aurkezpenak egingo dira, eta bezeroen zalantzak modu pertsonalizatuan erantzunez, bai online bai aurrez aurre. Azkenik, etengabeko hobekuntzak egingo ditugu, horretarako erabiltzaileen iritzia eta esperientziak kontuan hartuz.

